



# ARIMA BIHOTZA ETA BIZITZA



Zer nolako aldaketak egin behar dira Hondurasen sexu- eta genero- aniztasunaren inguruko estrategia bat aurrera eramateko?







# ARIMA BIHOTZA ETA BIZITZA

Zer nolako aldaketak egin behar dira Hondurasen sexu- eta genero- aniztasunaren inguruko estrategia bat aurrera eramateko?

## IZENBURUA

Arima, bihotza eta bizitza. Zer nolako aldaketak egin behar dira Hondurasen sexu-eta genero-aniztasunaren inguruko estrategia bat aurrera eramateko?

## ISBN

978-84-09-32918-2

## LEGEZKO GORDAILUA

LG BI 01332-2021

## EGILEAK

Fernando Altamira eta Esther Canarias  
(INCYDE, Iniciativas de Cooperación y Desarrollo S. Coop.)  
<http://www.iniciativasdecooperacionydesarrollo.com>

## LAGUNTZAILEAK



## DATA

2018ko iraila



## EDITOREA



<http://www.medicusmundibizkaia.org/>

## DISEINUA, ILUSTRAZIOAK ETA MAKETAZIOA

**FEMGARABAT .**

Bea Aparicio eta Janire Orduna

## INPRIMATZAILEA

ABZ Impresión digital

# 6

## Aurkezpena

# 15

## Aldaketak

- Lege esparruko eta instantzia publikoko aldaketak
- Hezkuntza aldaketak
- Erakundeen arteko harreman eta lotura aldaketak
- Enpresa eta erakunde pribatuetan aldaketak
- Komunikabideetan aldaketak

## AURKIBIDEA

# 9

## Menpeko eredia

- Gizona naiz, emakumea naiz...Zergatik duzu hain argi?
- Bazterketaren hirukoa

# 33

## Bibliografia

*Kanta hau entzun, arima, bihotza eta bizitza daramana,  
hiru gauzatxo hauek eman ahal dizkizut.  
Ez daukat dirurik, baina hori eskaini nahi dizut,  
arima, bihotza eta bizitza, besterik ez.*

*Oye esta canción que lleva alma, corazón y vida,  
estas tres cositas nada más te doy.  
Porque no tengo fortuna, estas tres cosas te ofrezco,  
alma, corazón y vida y nada más*

— Adrián Flores Alván —

# AURKEZPENA

**H**onduras<sup>1</sup> bezalako testuinguru batean, egiturazko indarke-riak zeharkatzen duena, bertakoen gorputzak eta ametsak etengabe bortxatzen dira. Ipar globaleko enpresa transnazio-nalek lurra ustiatzen dute eta pertsonen eta komunitateen bizitzarekin amaitzen dute. Hainbeste itzalen erdian, erakunde sozial eta herrikoien esperientzien bidez argia eta itzaropena agertzen zaigu eta egunerokoan bizi-alternatibak sortzen dizkiote heriotza-eredu horri.

Euskadiko erakundeek urteak daramatzate Hondurasen erresistentzia-eta alternatibak sortzeko prozesu horiei laguntzen. Hala ere, gutxi dira beraien lanean sexu- eta genero-aniztasuna (SGA) txertatzen dutenak.

**medicusmundi Bizkaia** kasuan, UDIMUF erakunde feministaren esku-tik ematen zaie laguntza aniztasun horiei.

Orrialde hauetan, herrialde hau zeharkatzen duten arimaren, bihotzaren eta bizitzaren zati bat erakutsi nahi dugu, bai eta SGArri buruz dauden erronka batzuk ere. Bi egunetan zehar Sexu eta Genero Aniztasunari bu-ruzko metodologia parte-hartzailearekin egin dugun lanaren emaitzak dira. Eta era berean, herrialde honetan erronka horietan aurrera egiteko bultza litezkeen **aldaketak** identifikatu ditugu.

Ikerketa akademikoko esparruak dituen bulego batetik lan egitea saihes-tu dugu, eta prozesu hori egunero hainbeste zapalkuntza bizi dituzten pertsona eta erakundeekin batera eraikitzea aukeratu dugu. Horretarako, hitz egin dugu eta konplizitateak sortu ditugu hainbat profiletako era-kundeen artean: LGTBI+, feministak, unibertsitatea eta nazioarteko lan-

kidetza. Horiek, kontzeptuez gain, arima, bihotz eta bizitza handia jarri dute. Hori izan da aurkezten dizuegun lanaren estiloa.

Gure lana, prozesua errazteaz gain, parte-hartzaileek emandako hitza or-denatzea izan da. Horrela aurkezten dizuegu orrialde hauetan. Testuingu-ru zehaztetan egiten den praktikatik landu izanak duen balioarekin.

Borrokak gurutzatzen diren etorkizuneko esku-hartzeetan lagundu ahal izatea espero dugu. Lurrerako edo kultura-aniztasunerako eskubidea sexu- eta genero-aniztasun duin bat bizitzeko eskubidearekin batera uler-tzen delako. Bizitzeko poza merezi duten bizitzak. Elkarrekin gozatzen di-tugun arimak, bihotzak eta bizitzak. Amets, borroka eta duintasun kolek-tiboak, gurutzatu eta lotu egiten ditugunak.

Osasuna

---

1 <http://wp.radioprogressohn.net>

**MENPEKO  
EREDUA**

## GIZONA NAIZ, EMAKUMEA NAIZ... ZERGATIK DUZU HAIN ARGI?

Egun batean norbaitek galdetzen badigu “eta zu zergatik zara gizona?, zergatik zara emakumea?” konturatuko gara gure bizitzak zalantzan jarri gabe zeharkatzen dituzten egia absolutu horietako baten aurrean gaudela. Eduardo Galeanok (1994) zera zioen: “Azken finean, garena aldatzeko egiten duguna

gara. Identitatea ez da museoko pieza bat, bitrinan geldu, baizik eta gure eguneroko kontraesanen sintesi harrigarria”. Gure identitatea poliedrikoa da, aurpegi eta ertz askorekin, gure bizitzaren bidean eraldatuz doana, non sexua, generoa, sexualitatea eta desioa aldaketak, esperimentatzen ari garen metamorfosi horien parte diren.

Hala ere, eredu nagusiak ez ditu gustura hartzen aukera horiek, eta museoko pieza horiek bezala nahi gaitu: zurrunkak, monolitikoak, formalak, esleitutako lekutik ateratzeko aukerarik gabe. Ondo dagoena esaten duten eta ez dagoena zigortzen duten arauak kontrolatzen eta kontrajartzen gaituzte. Eredu nagusi hori eredu ideologiko bat da, eta aztertu egin behar da bera ulertzeko eta jarduteko. Eredu hori sexu-genero sisteman oinarritzen da, eta eredu heteronormatiboaren oinarria da. Eredu horrek ez ditu sexua, generoa, sexualitatea eta desioa onartzen ezta zigortzen, horiek ez baitira araukoak. Nahia Taldean (2013) esan genuen bezala, “Ez-arau” horri sexu- eta genero-aniztasuna esaten diogu, eta hori LGBTBI+ eremutik harago doa.





## BAZTERKETAREN HIRUKOA

Fernando Altamirak (2016) dioen bezala, hainbeste bazterketa eta min sortzen duen eredu horrek hiru bururekin irudika dezakegun triangelua osatzen du.

Bata **heteronormatibitatea** izango litzateke, bestea **neoliberalismoa** eta bestea **etnozentrismoa**. Eredu hori ezin da ulertu besteekin gurutzatzen ez da bada. Horri aurre egiteko eta alternatibak sortzeko modurik egokiena, triangeluaren buruak beraien artean nahastea da, bestela ezinezkoa da aldaketarik burutzea. Beraz, ezinbestekoa da triangeluak pertsonen eta komunitateen bititza zehatzetan hartzen dituen formak kontuan izatea. Eredu nagusia mendekoa da eta globala da, horrek pla-

netako pertsona guztiak zeharkatzen ditu, modu batera edo bestera.

Honduraseko kasu zehatzean, prozesu horretan parte hartu duten pertsonak hirukiaren eragina izan dezaketen zenbait aldaketa posible identifikatu dituzte, sexu- eta genero-aniztasuna barne hartzen duten lankidetzaz-prozesu eraldatzaileak abian jartzen lagunduko luketenak.

Hondurasen ibilbide-orri bakarra ezartzea baino, nazioarteko lankidetzatik eragiteko aukera berriak irudikatzea, eta prozesu horiek ebaluatzerakoan kontuan hartu beharreko irizpide posibleak orientatzea lirateke aldaketa horien helburua.

Hondurasen, LGTBI+ pertsonen eskubideen urraketez gain, sistematikoki beste eskubide urraketa batzuk ere gertatzen dira, eta, kasu batzuetan, SGAREN urraketeekin elkarrekin topatzen dira. Argitalpen honen helburua Hondurasko errealitateari buruzko azterketa sakon bat egitea ez bada ere, zapalkuntza horiek Giza Eskubideak hainbat modutan urratzen dituen egoera batean kokatzeko beharra azpimarratzen dugu.

Gogoeta egiteko eta aldaketak kolektiboki identifikatzeko, honako **galdera inspiratzaile hau** proposatu dugu:


**Zein aldaketa  
egin behar dira  
SGAREN estrategia  
Hondurasen  
ezartzeko?**



**ALDA  
KETAK**

Hondurasen SGAn gerta litezkeen aldaketak identifikatzea ariketa konplexua da. Herrialdean ezarrita dauden dinamikekin apurtu ahal izateak sormena eta elkarrizketa eskatzen ditu, eta epe ertain eta luzera, denok elkarrekin aldaketa estrategiko eta berehalakoak egitea proposatu nahi da. Prozesuan parte hartu duten pertsonen bultzatu beharreko bost aldaketa-kategoria identifikatu dituzte:

Zein aldaketa egin behar dira SGaren estrategia Hondurasen ezartzeko?



## LEGE-ESPARRUKO ETA INSTANTZIA PUBLIKOKO ALDAKETAK





Nahiz eta lege-esparruetan gertatzen diren aldaketek ez duten automatikoki eskubide-estatu bat sortzen, ezinbesteko urratsa eta aitortpen soziala dira zapalkuntza jasotzen dituzten pertsonentzako.

**“Idatzita ez darena ez da existitzen, horregatik beharrezkoak dira lege-esparruak.”**

**“Jakin badakigu marko legalean aldaketak berez ez direla aldaketak sortzeko erantzunak, baina estatuak eskubideak onartzeko eta bultzatzeko balio du, nahi ez izan arren. Horregatik, gizarte zibila ikuskatzaile eta kontrolatzaile soziala da.”**

Lege-esparruak bultzatzearekin batera, **ekintza-plan zehatzak eta horiek ezartzeko baliabide egokiak** bermatu behar dira. Bestela, lege-esparruak eragin gaiztoa izan dezake, eta SGAREN eskubideen urraketa onartzen duen elementu bihur daiteke, are defentsa-gabezia handiagoa sortuz. Ildo horretan, genero-identitateari buruzko 29/2011 Legea hainbat aldiz berrikusi dela adierazten da eta oraindik izapidetzen ari dela. Zalantzarik gabe, onartzea urrats garrantzitsua litzateke.

**“Gainera, Lege hau [genero-identitateari buruzko lege integrala] onartzeak etxeko indarkeriaren Legea aldatzeko aukera eman dezake, eta indarkeria kasuak eta sexu-dibertsitate osoaren eskubideen urraketa zabaltzeko bultzada izango litzateke.”**

Hainbat urtez, udaletan generoa txertatzeko lan egin da **Emakumearen Udal Bulegoan** (EUB) bidez, eta horrela genero **sailak** indartuz. Hala ere, espazio horietan esku hartzeko eta aurrera egiteko zailtasuna aipatzen da, instantzia horien hauskortasunagatik eta arduradunen **txanda-**

**katzeagatik**, bai eta generoari buruzko **prestakuntza** eskasagatik ere.

SGA emakumeei zuzendutako politika espezifikoetan txertatzea aukera gisa proposatzen da, beti ere emakumeen mugimenduarekin elkarrizketa- eta adostasun-prozesu baten bidez. LGTBI+ gaia emakumeen politika espezifikoetan ez baztertzeko beharrezkoa da eta modu ezberdinean lantzea, bi sail ezberdinetik. Nolanahi ere, emakumeen politikarako berriazko aurrekontutik ez kentzeko konpromisoa hartu beharko litzateke.

ALDAKETAK	IRIZPIDEAK
SGAREN inguruko nazioarteko akordioekin bat datorren konstituzio-erreforma	SGAREN aldeko legea eta araudia txertatzeko beharrezkoa ikusten da, nazioartean onartuta dauden akordioetatik abiatuta.
Genero-identitateari buruzko lege integrala onar dadin sustatzea	Genero-identitateari buruzko legea onartzea premiazkoa da.
SGA beste lege batzuetan sartzea	Etxeko indarkeriaren legea aldatu behar da, ez baititu emakumeek jasotzen dituzten egoera asko jasotzen, are eta gutxiago SGAeko taldekoei eragiten dienak.
	Eraikitzen ari diren genero-politika berrietan SGA sartzea beharrezkoa da.

ALDAKETAK	IRIZPIDEAK
SGAerako unitate espezializatuak sortzea instantzia publiko guztietan	Administrazio publikoan espezializatutako unitateak antolatzea, SGA politika publiko guztietan txertatzeko, eta ez larrialdi-egoeretan bakarrik. Garrantzitsua da ikuspegi estrategiko batetik lan egitea.
	Dauden materialak (gidak, baliabideak, etab.) eraberritzea, SGAeko gaiak barneratuz.
	Instantzietan (udalak, unibertsitateak, etab.) SGA prozesuak eskatutako profila, esperientzia eta prestakuntza duten pertsonen ardurapean egon beharko liratekeela nabarmendu da.
SGA Emakumearen Udal Bulegoen (EUB) estrategian eta genero-sailetan sartzeari	Beharrezkoa da LGTBI+ gaia emakumeen politika espezifikotan ez baztertea eta modu ezberdinean lantzea, bi sail ezberdinetik. Nolanahi ere, emakumeen politikarako berariazko aurrekontutik ez kentzeko konpromisoa hartu beharko litzateke.

## HEZKUNTZA ALDAKETAK



Eskolak eta unibertsitateak **hezkuntza-eredu laiko** batean oinarrituta egon behar dute, pertsona guztien **inklusioa** bermatuko duena eta fundamentalismo erlijiosoek bultzatzen dituzten korrante kontserbadore eta atzerakoiei aurre egingo diena.

Fundamentalismo horiek SGAREN aurkako oldarkortasun handia erakusten ari dira, eta kasu batzuetan nazioarteko lankidetzako sektore batzuen finantzaketa lortzen dute.

**“[Gure artean presentzia duten] fundamentalismo erlijiosoek Bibliaren irakurketa eta testu-azterketa egitea eskatzen dute.”**

**“[Beharrezkoa da] estatu laikoa bermatzea eta [erlijioa] eremu pribatura eramatea, laikotasuna indartzea. Ez da aurrera egingo ikuspegi hori indartzen ez bada.”**

SGA hezkuntza-istantzia guztietan **zeharkako** moduan sartzeaz gain, LGTBI+ **pertsonen laguntza espezifiko ematea** ezinbestekoa da, hezkuntza-sistematik kanpo gera ez daitezen.

**“[LGTBI+ ikasleen] eskubideak defendatzea beharrezkoa da, diskriminatuak eta bortxatuak direlako. Ildo horretan, haien ahalduntzeak SGA taldeetan autonomia handiago sortuko du beraien arazoei aurre egiteko.”**

CAMBIOS	CRITERIOS
Hezkuntza-eredu laikoa ezartzea	Eskolako hezkuntza-materialean aldaketak egin behar dira. Adibidez, maila nazionalean ematen ari den sexualitateari buruzko gidak ez du batere zerikusirik SGAREkin.
Unibertsitateak SGA gehitzea	Akademian, SGA ikusgai bihurtzea eta errealitate hori unibertsitateko agendan txertatzea proposatzen da. Adibidez, SGAREN errektoreordetza bat sortuz.
	Toki ezberdinetan (udalak, unibertsitatea..) SGAREN prozesuak profil horretan esperientzia eta prestakuntza daukaten pertsonen ardurapean egon beharko litzateke.
LGTBI+ pertsonen laguntzea, hezkuntza-sistematik kanpo gera ez daitezen	SGA taldeen heziketa ahalduntzeko gaitasuna lortzeko bide bezala eta horrela beraien eskubideak aldarrikatu ahal izatea.





## ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMAN ETA LOTURA ALDAKETAK

---



Gaur egungo eredu nagusiak gizarte-eta herri-erakundeen arteko lehia etengabe sustatzen du. Gehienetan finantzaketa-iturrien bidez, eta horrek lankidetzari eta aliantza estrategikoak sortzeari kalte egiten die. Fun-tsezko aurrerapena litzateke konfrontazio-dinamika hori gainditzea, eta **aliantza kolektiboak ehuntzeko eta ekintza estrategiko eralda-tzaileagoak proposatzeko**. Egungo testuinguruan oinarrituz, eredu na-gusiaren zapalketak jasaten ari diren askotariko eragileen arteko loturak behar ditu; harreman horizontalak eta lankidetzakoak ezartzen ari diren lehia-harremanen aurrean.

“Gaur egungo erakundeen arteko harremanen ereduak ez du errazten sinergiak sortzea mugimendu, elkarre eta taldeen artean, horiek sistema neoliberal, etnozentrismoa eta heteronormatiboaren bidez eskubideak murriztuta ikusten dituztenean.”

“Kontua ez da bazterketa-egoeran dauden taldeen artean lehiatzea, baizik eta osagarriak eta loturak bilatzea.”

2009ko estatu kolpean, inflexio-puntu bat izan zen, eta **SGAekin lotutako erakundeek erresistentzia-prozesuarekin bat egin zuten**. Une horri esker, SGAko kolektiboek, ordura arte kontuan hartu ez ziren beste eragile batzuekin batera, espazioak eta lankidetzak eta borroka-harremanak ireki zituzten. Hala ere, gaur egun, estatu kolpearen ondorioz, Giza Eskubideetan atzera egin da, eta horrek pertsona eta erakunde askori eragiten die, besteak beste, SGAko taldean aurkitzen direnei.

“SGAko pertsonak eta kolektiboak SGA txertatzeko baliabide aktiboak izatea funtsezkoa da.”

**“Aldaketak soilik sortuko dira [zentzu zabalean] kolektiboak premia horretaz jabetzen badira eta haiek badira harreman-eredu berrien protagonistak eta bultzatzaileak.”**

SGA lantzen duten erakunde askok eguneroko larrialdi-egoerak arintzeko beharra eta betebeharra ikusten dute. Hala ere, dauden desberdintasun-arrakalak murrizteko bidean aurrera egin nahi bada, “larrialdiko” jarduketak horiek ikuspegi estrategikoago batekin osatu behar dira, eta horiek sortzen dituzten kausetan eragin behar da, Lala Mujikak eta Fernando Altamirak (2017) adierazi zuten bezala.

CAMBIOS	CRITERIOS
Esku-hartze eremuan ikuspegi ez-heteronormatiboa duten eragile eta sektoreen arteko aliantzak erraztea	Aliantzak askotariko eragileen eta zapalduen artean, ikuspegi ez-heteronormatibo batetik bultzatzen dira. Aliantza, horizontalak, lankidetzakoak eta ez lehiakortasunekoak bultzatuz konfiantzazko loturak ehuntzen dira.
	SGAren ikuspegiko diskurtsoa eta praktika txertatzen aurrera egiteko, funtsezko aktore eta pertsonak identifikatzea funtsezkoa da.
Harreman-espazio inklusiboak sortzea eta kolektiboen arteko borroka eta lotura-puntuak bultzatzea	Elkarrekin lan egiteko esperientziak eta hainbat kolektiboren artean partekatutako borrokak berreskuratzea eta sistematizatzea (adibidez, estatu-kolpea izan zenean).

CAMBIOS	CRITERIOS
Politika publikoetan ikuspegi estrategiko batetik nola eragin bilatzea, larrialdiko ekintza eta estrategikoa orekatuz	SGA erakundeen estrategietan eta urteko planetan sartzea funtsezkotzat jotzen da, eta baita SGAREN inguruan jarduten duten kolektiboak ahalduntzea ere.



# ENPRESA ETA ERAKUNDE PRIBATUETAN ALDAKETAK



Erakunde publikoek SGA txertatzeko beharrezkoak diren gizarte-aldaketak bermatzeko erantzukizuna dute, eta aldi berean, erakunde pribatuek ere bai.

**“Gaur egun, Hondurasen, atzerriko enpresa transnazional batzuek soilik txertatzen dute SGA beraien plan estrategikoetan. Baina garrantzitsua litzateke enpresa eta erakunde pribatu guztien plan estrategikoan SGAREN ikuspegia txertatzea. Horrela, heteronormatiboak ez diren kolektibo askok jasaten duten lan diskriminazioa ekidin ahalko zen, lan-merkatuan sartuz eta beraien egoera ekonomikoa hobetuz.”**

CAMBIOS	CRITERIOS
Enpresa eta erakunde pribatuek euren plan estrategikoetan SGA txertatzea, kolektibo askok pairatzen duten lan diskriminazioa saihesteko.	Lan esparruan diskriminazioak saihesteko, pertsonak sentsibilizatu eta ahaldundu egiten dira.
	LGTBI+ eskubideak defendatzen dituzten erakundeen inplikazioa eta parte-hartze aktiboa sustatzen da.
	SGAREN ardatza bultzatzen da, eta genero-politiketan eraginkor bihurtzen da, desberdintasun arrakalak gainditzeko neurri ekonomikoetan bereziki eragiten baitute (La Ceiba udala aipatzen da adibide gisa, inguruko enpresekin harreman zuzena baitu).



## KOMUNIKABIDEETAN ALDAKETAK

---



Komunikabideetan **SGAren inguruan erakusten dituzten irudiak** kontrolatzeko mekanismoak egotea beharrezkoa da. Gizarte zibila, Estatuaren berezko mekanismoez gain, erakusten diren albiste eta mezuen jarraipena egiteko antolatu daiteke.

**“Komunikabideek eta sare sozialek gizarte-ikuskaritzaren menpe egon beharko lukete, SGAeko taldeak estigmatizatzen eta diskriminatzen dituzten irudiak saihesteko.”**

**“Komunikabideetan SGAren inguruan egiten egiten den erabilera murrizta da, eta ez du kolektibo globalaren errealitatea aintzat hartzen.”**

Halaber, proposatzen da komunikabideek ez dakitela SGAren errealitatea zein den ezta zein kontzeptu daude. Izan ere, etengabe erakusten diren erreferentzietan binarismo klasikoari erantzuten diote, aniztasuna erakutsi gabe.

**“Era berean, generoa bezalako kontzeptuaren gainean ez dago definizio zehatzik: generoa ez baita gizona eta emakumea bakarrik.”**

CAMBIOS	CRITERIOS
Komunikazio- eta irudi-kodea aldatzea, SGA diskriminazio-egoerak saihesteko	Komunikabideen bidez igorritako mezu eta irudien tratamenduari buruzko legeria berrikustea, askotan diskriminatzaileak baitira eta SGAeko taldeak estigmatizatzen baitituzte.
	Komunikabideetan gizarte-partaidetza sustatzea gizarte ikuspegiaren eta gizarte-kontrolaren bidez, SGAren inguruko mezu sexistak, homofoboak eta diskriminatzaileak ez emateko.
	Kode etikoan SGAen irudiaren erabilera kaltegarria sartu behar da zigor kodea berrikustea, gorrotoa sustatzen duten irudiak ezin direla erabili jasotzen duena.
	Balitzko delitu gisa hartu beharko litzateke, eta neurri egokiak hartu ez-betetzeen aurrean.



## BIBLIOGRAFIA

**AA.VV.** (2006) *La aventura de la sistematización. Cómo mirar y aprender de nuestras prácticas desde nuestras prácticas*. Alboan, Instituto de DDHH Pedro Arrupe eta Hegoa, Bilbo.

<http://www.iniciativasdecooperacionydesarrollo.com/wp-content/uploads/2011/05/la-aventura-de-la-sistematizacic3b3n.pdf>

2021eko uztailaren gan kontsultatua

**AA.VV.**, (2013). *Los deseos olvidados*. Bilbo, Nahia taldea.

<http://www.iniciativasdecooperacionydesarrollo.com/wp-content/uploads/2013/10/nahia-los-deseos-olvidados.pdf>

2021eko uztailaren gan kontsultatua

**Altamira, Fernando** (2016) *Bailando con el deseo. Algunas claves para incorporar la diversidad sexual y de género en las ONGD* en Cuadernos de Investigación en Procesos de Desarrollo, 19 zk. Valentziako Unibertsitate Politeknikoa, Valentzia.

[https://riunet.upv.es/bitstream/handle/10251/94730/cuad\\_inv19.pdf?sequence=1&isAllowed=y](https://riunet.upv.es/bitstream/handle/10251/94730/cuad_inv19.pdf?sequence=1&isAllowed=y)

2021eko uztailaren gan kontsultatua

**Cruells, Marta** (2015) *La interseccionalidad política: tipos y factores de entrada en la agenda política, jurídica y de los movimientos sociales*. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, Bartzelona.

[https://ddd.uab.cat/pub/tesis/2015/hdl\\_10803\\_288224/mcl1de1.pdf](https://ddd.uab.cat/pub/tesis/2015/hdl_10803_288224/mcl1de1.pdf)

2021eko uztailaren gan kontsultatua

**Galeano, Eduardo** (1994) *El libro de los abrazos*. Madril, Siglo XXI

**Mujika, Lala y Altamira, Fernando** (2017) *La diversidad sexual y de género en Honduras (Tegucigalpa y La Ceiba.)* Bilbo, Aldarte.

[http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/Informe\\_Hondura\\_CAS.pdf](http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/Informe_Hondura_CAS.pdf)

2021eko uztailean gan kontsultatua

**Puar, Jasbir** (2017) *Ensamblajes terroristas. El homonacionalismo en tiempos queer*. Bellaterra, Bartzelona.

**Stryker, Susan** (2017) *Historia de lo trans*. Continta me tienes. Madril.

